



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

*Zurekin bat*

## **2021ean Arabako elkarte eta erakundeek garatu beharreko jardueretarako eta proiektuetarako Fundación Vital Fundazioaren bigarren laguntza-deialdia**

Vital Fundazioak argitara eman du Arabako gizarteari laguntzeko deialdi hau, gizarte inklusiboagoa, bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko proiektuei babes eta bultzada emateko helburuz.

Arabako Lurralde Historikoaren aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturalari laguntzen dioten proiektuei erantzun zuzena, eta bereziki baloratuko da proiektu horien izaera berritzailea, baita haien erabilgarritasuna eta eragina ere. Lehenetsutako jarduerak-erakundeak oinarri hauetan zehaztu dira.

Deialdi hau Vital Fundazioak 2021ean garatuko duen bigarren eta azken deialdia izango da. Arabako erakunde eta antolakundeek 2021eko deialdi bietako batean baino ezin dezakete parte hartu, eta gehienez proiektu bat aurkeztu ahal izango dute urtean. Aurkeztuko diren proiektuek amaituta egon beharko dute hitzarmena sinatu eta gehienez ere hamabi hilabeteko epean.

### **BIGARREN DEIALDIAREN OINARRIAK**

**1. Helburua:** 2021erako bigarren deialdi honek, laguntzak ematea du helburu, lehia-konkurrentzia erregimenean, euren jarduerak Vital Fundazioaren jardun-eremuetan garatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakunde arabarren proiektuei eta jarduerari, eta lehenetsunez, honako hauei:

- **Gizarte arloa:**

Pertsona guztien gizarteratzea eta berdintasuna lortzera bideratutako proiektu eta jarduerak berritzaileak.

Kolektibo ahulenei baita horien zaintzaileei eta haien familiei ere laguntza eta aukerak eskaintzen dizkieten proiektuak.

Jarduerak-erakundeak:

- Desgaitasuna eta mendekotasuna
- Osasuna
- Gizarte bazterkeria jasateko arriskua
- Adinekoak
- Genero-berdintasuna



- **Hezkuntza, prestakuntza eta enplegua:**

Hezkuntza-jarduera eta -programa berritzaileak, haurren, gazteen eta helduen prestakuntza integrala osatuko duten gaitasunak, jarrerak eta balioak garatzeko.

Eskola behar baino lehenago uztea murrizten duten ekimenak.

Gazteak eta enplegarritasun zaileko pertsonak lan-merkatuan sartzea hobetuko duten ekintzak.

- **Ingurumena eta Ondarea:**

Natura-, historia- eta kultura-ondarea sustatzeko eta mantentzeko jarduerak eta programak.

- **Ikerketa, berrikuntza eta garapen teknologikoa:**

Ikerketa zientifiko eta teknikoko programak, baita dibulgaziokoak ere. Berrikuntza-proiektuak hezkuntza-, kultura- eta gizarte-sektoreetan.

- **Kultura:**

Kultura, oro har, sustatzera eta partaidetza eta balio komunitarioak sustatzera bideratutako proiektu eta jarduera soziokulturalak.

Aurrerapena, aukerak eta gizarte-eraldaketa sortzeko kultura tresna erabilgarria duten proiektuak.

Sortzaile berriei laguntzeko programak.

## **2. Elkarte eta erakunde eskatzaileek nahitaez bete beharreko baldintzak:**

- Eskabidea eskatutako dokumentazio guztiarekin osatzea.
- Legez eratuta egon behar dute eta dagokien erregistroan inskribatuta, gutxienez urtebeteko antzinatasunaz.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde izenpean eratuta egon behar dute, gizarte intereseko helburuak izan behar dituzte eta euren jarduna Arabako lurralde historikoan burutu behar dute.
- Zerga- eta lan-betebeharrak egunean izatea.
- Aurkeztu duten proiektua kudeatzeko egitura eta ahalmen nahikoa izan behar dute.

➤ *Eskakizunen bat betetzen ez bada, eskabidea baztertzeko arrazoia izango da*

### **Aurkeztu beharreko dokumentazioa :**

- Estatutu eguneratuak.
- Dagokion erregistroko inskripzioa.
- Ordezkarria: ahalordeak/NAN.
- Aurkeztutako proiektuaren deskribapen zehatza, ahalik eta zehaztasun handienarekin. Lortu beharreko helburuak eta aurrekontua jaso beharko ditu, gastu eta sarrera guztiekin.
- Gizarte-eraginari buruzko fitxa, aurreikusitako onuradunen kopurua (zuzenean zein zeharka) eta erabiliko diren neurgailuak adierazita.

- Zerga- eta lan-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Azken ekitaldiko urteko kontuak (balantzea eta galera-irabazien kontua).
- Azken urtean egindako jardueren memoria.

➤ *Eskatzailea administrazio publikoa bada, ez da beharrezkoa izango 1., 2., eta 7. puntuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztea.*

### 3. Proiektuak:

Elkarte edo erakunde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

Aurkeztutako proposamenetan, honako hauek balioetsiko dira:

- Proiektuaren helburua bat etor dadila arestian aipatu diren Vital Fundazioaren lehentasunezko jarduera-arloekin.
- Proiektuaren erabilgarritasuna eta sortzen duen inpaktu-maila.
- Berrikuntzarako gaitasuna.
- Gizarteratzeari, genero-berdintasunari eta euskararen erabilerari ematen dien bultzada.
- Arabako Lurralde Historikoaren sustapena.
- Erakundearen ibilbidea eta aurkeztutako proiektua garatzeko gaitasuna eta bitartekoak.
- Beste diru-laguntza ekonomiko batzuk izatea.
- Proiektua gauzatzean edo planifikatzean erakunde batek baino gehiagok parte hartzea.
- Bideragarritasun ekonomikoa eta garatu beharreko jardueren iraunkortasuna bermatu dezaketen baliabide teknikoak eta giza baliabideak.

Finantzaketatik **kanpo** geratuko dira ohiko egiturazko gastuak, baita dietak ere.

### 4. Vital Fundazioaren ekarpen ekonomikoa:

Laguntzak ahalik eta proiektu kopuru handienari emateko helburuz, eta ***orientatzeko erreferentzia gisa***, beti ere, Vital Fundazioak proiektuei buruz egiten duen balorazioaren arabera, deialdi honen bitartez emango diren kopuruak honako hauek izango dira:

-50.000 €-tik gorako aurrekontua edo exekuzio-zenbatekoa guztira duten proiektuak: Vital Fundazioak emango duen laguntza, **gehienez ere**, aurrekontuaren % 40 artekoa izan daiteke.

-20.000 €-tik gorako eta 50.00 €-tik beherako aurrekontua edo exekuzio-zenbatekoa guztira duten proiektuak: Vital Fundazioak emango duen laguntza, **gehienez ere**, aurrekontuaren % 50 artekoa izan daiteke.

-20.000 €-tik beherako aurrekontua edo exekuzio-zenbatekoa guztira duten proiektuak: Vital Fundazioak emango duen laguntza, **gehienez ere**, aurrekontuaren % 90 artekoa izan daiteke.

Orotara finantzatu beharreko zenbatekoak, hala Vital Fundazioak emandako laguntzetatik nola proiektuak jasotzen dituen beste laguntza osagarri batzuetatik lortu denak, ez du proiektuaren behin betiko guztizko zenbatekoa gaindituko.



Eman zaion laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak Kutxabanken bere izenean duen kontu batean sartuta ordainduko da. Oro har, epe bitan egingo da: % 75 gehienez, laguntza ematen denean lankidetzaren hitzarmena sinatzean, eta gainerakoa, proiektuaren amaierako exekuzio-memoria aurkeztu eta onartu ostean.

## 5. Faseak:

- Aurkezpen epea: Irailaren 13tik 24ra (14:00etan)
- Ebaluazioa: Iraila eta urria
- Ebazpena: Urriaren 28an: Vital Fundazioaren Patronatuak onartzea.
- Ebazpenaren jakinarazpena: Urriaren 29tik aurrera

Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaio erakunde bakoitzari. Ebazpena positiboa bada, eta dokumentazio gehigarria eskatzen bada, jakinarazpena egiten denetik gehienez ere **15 eguneko** epea izango da eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Epe horren barruan aurkezten ez bada, eskaera ezetsi egingo da.

